

'Brouard' kasua

# San Cristobal diru publikoa bidegabe erabiltzeagatik ere akusatu du epaileak

Mohand Talbiren deklarazioan oinarrituta autoa zabaldu egin du Armengolek

Erredakzioa / Bilbo

'Brouard kasuko' epaileak Julian San Cristobali, HBko burukidea hiltzeko beharrezko laguntza eman zuela akusatzeaz gain, ekintza horretarako diru publikoa bidegabe erabili izana ere egotzi dio herenegun auzipetze autoa zabaldu ondoren. Brouard hiltzeko 50 milioi pezeta (ia 2 milioi libera) eman zizkiola Morcillori dio autoak. San Cristobalek gaur berriz deklaratu du.

GUZTIRA Santi Brouard HBko burukidea hiltzeko diru publikotik 50 milioi pezeta (ia 2 milioi libera) erabili zirela dio Jose Luis Gonzalez Armengol epaileak. Herenegun auzipetze autoa zabaltzea erabaki zuen, eta Estatuko Segurtasunerako zuzendari ohi Julian San Cristobali, hilketa burutzeko beharrezko laguntzaile izateaz gain, diru publikoa bidegabe erabiltzea ere egotzi zion. Autoak dienez, dirua «helburu maltzurerekin Brouard sendagilearen heriotza burutzeko sikarioei ondasunak emateko erabili zen».

Froga moduan aurreko astean Mohand Talbiri hartutako deklarazioa aurkeztu du Armengolek, eta, gainera, San Cristobal operazioak



Julian San Cristobal (ezkerrean) eta bere abokatua, Felix Rojo.

finantzatzen zituen gizona zela esan zuen Talbik. 50 milioi pezeta lau txeketan banatu ziren, eta autoak dio-

enez, San Cristobalek sinatu egin zituen bere karguak baliatuta.

Diru txekak eramaileari

zuzenduta zeuden «128 klabea erabiliz; hau da, Estatu-ko Idazkaritzarena». Lehen biak 10 eta 15 milioi pezeta-zenak ziren (ia 400.000 eta 600.000 libera) eta 1984ko azaroaren 8an eta 12an ordaindu ziren, hilketa baino aste bete lehenago. Hilaren 28an eta 30ean beste 30 milioi pezeta (1.200.000 libera inguru) ordaindu ziren autoak dienez.

Armengol epailearen arabera azken txekak Luis Morcillori, ustez Brouard hil zuenari, beste operazio batengatik aurrez eman zioten diru kopuru bat ere barne zerman. Autoak dienez Morcillok 1985eko otsailaren erdialdean Donibane-Lohizuneko taberna batean egin zen beste ekintza batean parte hartu zuen, eta horregatik 5 milioi pezeta (ia 200.000 libera) eman zizkion San Cristobalek.

## Errekurtsoa aurkezteko hiru egun

Epailearen aurrean behin San Cristobalek esan zuen «diru mugimendu hori guztiz posible zela garai hartan», eta ekintza ilegalak finantzatzeko balio izan zuela ukatu egin zuen. Autoaren errekurtsoa aurkezteko hiru eguneko epea du San Cristobalek, eta gaur Bilbon berriz deklaratu beharko du.

## Dorado eta Bayo guardia zibil ohiei behin-behineko askatasuna ukatu die Entzutegi Nazionalak

■ Aurreko egoera ez dela aldatu, eta ihes egiteko arriskua dagoela uste du

Europa Press / Madril

ENTZUTEGI Nazionalako Penaleko Lehen Salak ukatu egin die behin-behineko askatasuna Joxean Lasa eta Joxi Zabalen hilketa, tortura eta bahiketagatik auzipeturik dauden Felipe Bayo eta Enrique Dorado Villalobos guardia zibil ohiei. Ihes egiteko arriskua dagoela dio Entzutegiak, laster hasiko baita epaiketa.

«Epaiketa oztopatzeko interes handiak» egon daitezkeela uste du Entzutegiak. «Ustez ekintzaren egile direnek ihes egitea izango litzateke eragozpenik handiena», dio.

Hirugarren aldia da askatasuna ukatu diotena Bayori. Auzipetua bere egoera psikikoan oinarritu zen eskaera egiteko, baina Entzutegi Nazionalaren ustez «askatasuna emateko ezin da horretan bakarrik oinarritu».

Doradoren eskaerari buruz, berriz, Entzutegiak dio ihes egiteko arriskua dagoela, eta auzipetuak duen zigor eskaera handiak eragina izango zuela askatasuna ukatzeko orduan. Gainera, Entzutegi Nazionalak uste du kartzelan egoteak ez duela oztopatu bere epaiketaren prestaketa.

## laburrean

### ■ Etxebarri zinegotzi presoari Iruñeko Udaleko lehen batzarrean egon ezin izan delako protesta egin du EHk

EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA bandera jarritz protesta egin zuten atzo EHko zinegotziek Iruñeko Udaleko lehen batzarrean, Juan Mari Etxebarri zinegotzi presoari Entzutegi Nazionalak joaten utzi ez ziolako. Yolanda Barcinak hiru aldiz eskatuta EHko zinegotziek bandera kendu egin zuten, ondoren Patxi Zabaletak azaldu zenez bakarrik Etxebarri ez zegoela gogorarazi nahi zutelako». Jose Martin Abaurrea EHko zinegotziak «irain jasangarritzat jo zuen Entzutegi Nazionalaren erabakia».

### ■ EAK, EHk eta EAJk Amurrioko Udaleko zinegotzi karguak banatu dituzte

GOBERNU akordioa iritsi ez zuten arren, atzo EAK, EHk eta EAJk Amu-

rrioko Udaleko zinegotzi karguak banatu zituzten. Alkatetza EArena da, eta alderdi horrek izango ditu zinegotzigo gehienak: Hirigintza, Lana eta Zerbitzuak; Kirolak eta Festak; Nekazaritza, Abeltzantza, Mendiak eta Ingurugiroa; eta Administrazio Batzarra. EHk bi izango ditu: Kultura, Euskara eta Hezkuntza; eta Gazteria eta Emakumea. EAJk, bere aldetik, beste bi izango ditu: Ekintza Soziala eta Elkarlana.

### ■ Behin-behineko udal gobernua osatu dute PSEk eta EAK Urtuellan

BEHIN-BEHINEKO gobernua osatu dutela Urtuellan azaldu zuten atzo PSE-EEK eta EAK. Horrela 1997ko apirilaz geroztik, EAJ hirukotik atera zenetik, gobernatzeko zuten alderdiek jarraituko dute. Hala ere, bi alderdiek esan dute gobernua behin-behinekoa dela. Akordioa ez da ofiziala, eta azal-

du zuten «uda ondoren alderdi politiko guztiekin hitz egin arte» mantenduko da. Orduan eratuko dira behin betiko akordioak, EAKo Txemi Tejedorek azaldu zenez, «EAEn lortutako akordioaren arabera».

### ■ Gernikako zinegotzigoak EAJ eta EAren eskuetan geratu dira

EAJ eta EAK eskuratu dituzte Gernikako Udaleko zinegotzigoak. Gobernu Batzordea, Miguel Angel Aranaz EAJko alkateaz gain, Andoni Arizpe eta Imanol Zubizarreta EAJko ordezkariekin eta Jose Mari Gorroño eta Begoña Landa EAKo ordezkariekin osatu da. EAJk zazpi zinegotzigo izango ditu: Hirigintza; Ingurugiroa; Barne Antolakuntza; Kultura; Ogasuna; Feriak eta Azokak; eta Merkataritza, Industria eta Turismoa. EAK Lanak eta Zerbitzuak, eta Gizarte Ongizatea izango ditu.

### ■ Alonsotegiko EAK positibotzat jo du EH sartzeko aukera uzten duen EAJrekin akordioa

LUIS FERNANDO URKIOLA Alonsotegiko EAKo bozeramaileak positibotzat jo zuen EAJrekin lortutako akordioa. «Aurreko lau urteetan egindako kudeaketarekin jarraitzeko aukera ematen digu, eta EH aurrerago gobernuan sartzeko aukera ere ematen du», esan zuen Luis Fernando Urkiolak. Akordioak «EAK udal gaietan dituen ikuspuntu ezberdinak» errespetatzen dituela esan zuen, eta «aldi berean EH etorkizuneko gobernu erantzukizunetan sar dadin» aukera ematen duela gaineratu zuen. Horrela beste leku batzuetan gertatzen ari den dinamika politikoa jarraitzen dutela esan zuen, eta Bermeo jarri zuen adibide bezala. Herri horretan EAK, EAJk eta EHk akordioa lortu dute.